

Gure Elizbarrutiak

El pasado diocesano que ha configurado la geografía histórica de la Iglesia en el País Vasco tiene el mayor interés no sólo para la historia eclesial sino también para la justa comprensión de nuestra Historia general. Euskal Herria han sido gobernada, al menos durante algún tiempo, desde 18 obispados distintos: 8 de ellos con sede dentro de los actuales territorios del País, y 10 fuera de los mismos.

Ez dira gutxi izan Euskal Herria aldi eta parte batez gidatu duten Gotzaindegiak, aski Elizbarruti edo Diozesitan banatuta egon baita Euskal Herria (18). Hemezortzi horietako hamar gotzain-hiri Euskal Herrikan kanpokoak izan dira, eta zortzik gurean bertan zuten egoitza.

Jakina denez, diozesiak "Probintzia" deituetan bilduta egon dira Eliza katolikoan, Artzapezpiku bat buru dutela. Euskal Herriko diozesiak horrelako 6 Probintzia ezberdinetakoak izan dira; baina sei Probintzia horietako bost artzapezpiku-hiri Euskal Herrikan kanpokoak izan dira, eta bertako bakarra Iruñekoa da (1956...).

Munduko Eliza osoa antolatzeko balio izan dute Diozesiek, Misio-herriak beste antolaera baten barruan utzita, eta hauek ere, beren heldutasunerara iritsi ahala, Diozesi bihurtzen dira.

Diozesien izenak ez dira elizbarrutiko lurraldearenetik hartzen, baizik eta Gotzainaren bizilekua den hiriarenetik ("Bilboko Diozesia", eta ez "Bizkaikoa", adibidez). Izendapen-modu horrek badu bere arrazoi historikoa, antzinako eliz barrutiak hirietan jaio baitziren, hiriko Gotzainaren ardurapean, alderietara gerora zabaltzeko.

Diozesiak bere baitan izaera-aurpegi anitz ditu, geografikoa noski, baina baita soziala eta instituzionala ere. Kristau-herriarekiko dituen betekizunak ongi gidaturik eramateko sortu ziren Diozesiak, lurralde gisara. Lurralde horiek denbora pasatu ahala aldatu eta birmoldatu ere egin izan dira: gure garaikoa da, oraindik, Gasteizko Diozesia nola banatu zen hiru Diozesi sortuta (Gasteiz bera, Bilbo eta Donostia).

Lurraldearekin batera, bertan bizi den gizarte kristaua da Diozesietako lehenengo altxorra, kristau-herri hori da Diozesiek zaindu behar duten lagunartea. Gotzainarekin hasita, Diozesiko agintari eta arduradunen zeregina herri fededuna zaindu eta gidatzea da. Vatikano II.ak garbiki baieztatu zuen Elizak gorde behar duen herritasun hori, eta nabariago izan zedin Gotzainaren ondoan gobernu-kontseiluak sustatu zituen, Gotzainaren aginte monarkikoa elkartekoa ere izan zedin.

Elizaren barruan, aspaldidanik, aginte bakarren antolamendua bi piramidetan eraikita dago, biak ere Aita Santuen mendean daudela: bata Diozesiena da eta bestea Institutu Erljijosoena. Bi horien zereginak eta interesak ez dira nahitaz berdinak, eta inoiz edo bestetan harmonia ona gordezea ez da gertatu erraz-erraza ere. Erljijosoak ahalegindu dira beren barruko gobernu Gotzainengandik autonomiaz eramaten, beti ere lan pastoraletarako Gotzainaren esanetara zeudela.

Diozesietako Gotzainen hautapen, izendapen eta sagaratzeak prozedura ezberdinak ezagutu dituzte Elizaren historian. Gotzainak sagaratzeari sakramentu-balioa aitoru zaiolarik, beti eman zaio funtsezko garrantzia sagaratzea apostoluengandiko segidatasunean egiteari.

Hautapen-aurkezpenak, ordea, bestelako moduak ere ezagutu ditu. Oro har, esan dezakegu indar eragile ezberdinek izan dutela zerikusirik Gotzainaren hautapenean: hala nola, tokian tokiko kristau-herriak, Diozesiko apaizgoak, Eliz Probintziako hierarkiak, Erromako Kuriak (Aita Santuak)



eta agintari zibilek (Erret Zaingoak, Konkordatu bi-dezkoak, etab.). Guztien arteko adostasun-desadostasunek izan dute eraginik Gotzainak aukeratzean.

Euskal Diozesiak

Euskal Herriko Diozesiak ez ziren jaio denak urte eta data jakin batean, eta sortu denboraren harian sortuz joan ziren, XX. mendean orain-oraingo lurralde-izaera hartu zuten arte.

Euskal Herriak ezagutu dituen egoera erlijioso eta zibilak, biek, zerikusi zuzena izan dute Diozesien sorrera eta ondoko bilakaeran. Euskal Herriaren batasun politikorik ezak oso zail egin du Elizatik bertatik (bere garbitasun osoan, besterik gabe), eliz barrutiak pastoralaren premietarako moldatzea. Mendek zehar, gehienetan, nagusi ziren aginteak ere ahalegindu dira (nahi bada, goian erregeak, eta beheragotik Batzar Nagusiak, adibidez) eliz geografia beren gisara moldatzen.

Hori horrela, Euskal Iparralde batez ere hiru Diozesitan banatuta egon zen Erregimen Zaharrean (XVIII. mendea arte): Baiona Lapurdin, Akize (*Dax*) Nafarroa Beherean eta parte Zuberoan, eta Oloroe Zuberoa gehienean. XIX. mendeko lehen hamarkadetan finkatu zen gaurko Baionako Diozesiaren barrutia (1801, 1823): lehenengo aldiz orduan hartu zuen bere baitan Euskal Iparralde osoa ez ezik Pirinio Atlantikoetako Departamentu osoa; harritzekoa, izan ere Departamentu zibil horretako hiriburua ez baita Baiona, Paue baizik.

Euskal Hegoaldeko Diozesien historia Nafarroa eta Gaztelako Erreinuekin loturik ageri zaigu. Iruñea da, noski, neurri batean bertako Erresumarekin bat egin zuena, baina betiere Lehen Erdi Arotik zekarren barruti zabalari eutsiz, baita Nafarroak Hiru Probintziak eta bere subiranotasuna galdu ondoren ere (1512). Horrela, Gipuzkoa gehienak eta Arabaren parte batek Iruñeko Gotzainaren mendean segitu zuten, XIX. mendea arte. Tartean egon zen, gainera, Felipe II.ak mugal-

dea bere politikara ekarri nahirik, Baiona eta Iruñeren artean ezarritako birbanaketa (Baztan, Hondarri aldean Baiarri kenduz, 1567).

Gure Hegoaldean, Iruñerekin batera, Calahorrrakoa izan zen beste Diozesi handia, batik bat lurraldez euskal herritarra zena; bere barrutian izan zituen Calahorrrak Araba ia osorik, Gipuzkoan Deba ibaiaren arroa eta Bizkaian Ibaizabal-Nerbioraino –xehetasun handiagotan sartu gabe esateko–; Enkarterria, berriz, Burgos eta Santanderik gobernatu izan zen. Mendebaldeko mugalde hau, Trebiñu bezala, Gasteizko Diozesi berrira bildu zen 1861ean; Bilbokoa sortzean (1950), Bizkaia osoa bilduko da bertara (Urduña salbu).

Bukatzeko, aipatzekoak dira Lehen Ardi Aroan Araba-Bizkaitako mendebaldeetan gobernua izandako hiru Diozesi. Bi Burgos-en, Oca-ko diozesi goiztarra (V-VI. mend.) eta Valpuestakoa (Gobiaran-en, 804-1052), eta bat Araban, Armentiakoa (881-1087).

Orokorrean, eliz historiak bere tradizioari euste-ko joera izan du, eta luzaroan diozesien eta bestelako eliz barrutien geografia bere gisara marraztu du. Eta, aitzitik, Estatuaren interesak indartu ahala, elizbarrutien arteko mugak haien muga zibiletara egokitzeko asmoa ageri da, Koroaren eta agintari zibilen gogoen arabera. Lehen tradizio harengatik, Iruñeko Gotzainak Gipuzkoa eta Aragoiko zenbait parrokiatan ere agindu zezakeen, eta Burgos, Santander edo Calahorrrak Euskal Herriko Eliza gobernatu.

Azken datu txiki bat: 1970eko hamarkadan, dirudienez, bideak samurtu ziren Euskal Hegoaldeari eliz Probintzia berri batean (Iruñea buru zela) notasuna aitortzeko, baina urak errota zaharrera itzuli ziren berriro, eta gaur egun Bizkaia eta Araba Burgos-ko barrutian daude eta Gipuzkoa Iruñekoan. Inkulturazio eliztar jatorraren zerbitzurako ote da?

Joseba Intxausti